

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure ustez, bezeroak mantentzea bezero berriak lortzea baino askoz garrantzitsuagoa da. Bezeroekiko harreman egonkorra eta pertsonalizatua funtsezkoa da gure zerbitzuen kalitatea eta gure proiektuen arrakasta bermatzeko. **Bezeroekiko konfiantza eta ulermena lortzea**, gure lanaren helburu nagusia da. Hala ere, bezero berri gehiago lortzea ere ez dugu alde batera uzten, eta beti egingo dugu ahalegina gure proiektu eta zerbitzuak zabaltzeko. **Bien bitartean, gure bezeroei beti arreta pertsonalizatua eta egokiena eskaintzea izango dugu gure lehentasun nagusia.**



Eskutik-en, **bezeroekiko harreman pertsonalizatua** dugu gure negozioaren muina. Hori dela eta, gure zerbitzuak eta terapia mota ezberdinak eskaintzen dituzten gune eta erakundeekin harreman zuzena eta estua izatea nahi dugu. Horrela, bezeroekiko konfiantza sendotzen dugu eta haien beharretara egokitutako zerbitzuak eskaintzen ditugu.

Hasiera batean, gure zerbitzuen informazioa, eskola eta elkarteekin elkarlanean, **ahoz aho bidez eta dokumentu eskuorriak** erabiliz helaraziko ditugu. Horrela, gure bezero potentzialen eskura egon gaitezke, bereziki haurrei eta haien familiei zuzendutako informazioa emanez. **Informazioa gure bezero potentzialei, hau da, hirugarren adinekoei helarazteko eskuorriak eta ahoz ahoko informazioa** erabiliko ditugu bereziki.

Web-gunea:

www.eskutik.com

(<https://sites.google.com/durangobhi.net/wwweskutikcom/orri-nagusia>) ere erabiliko dugu, zeinaren bitartez, gurekin kontaktuan jarri ahalko diren, erabilgarri eta aldiro berrituta egongo delako. Hala ere, kontzienteak gara gure bezero batzuek teknologiak ez dituztela modu ohikoan erabiltzen, eta horregatik, informazioa **modu tradizionalagoetan** ere helaraziko diegu, hala nola, **aurrez aurreko bileretan, hitzaldietan eta eskola edo elkarteetako aurkezpenetan.**

Gure webgunean edo telefono bidez (**944 325 568**) gure zerbitzuen inguruko informazioa eskuratzeko aukera egongo da. Horrez gain, gure **sare sozialak, adibidez, Instagram eta Tiktok (@eskutik)**, ere erabiliko ditugu gure ekintzen eta proiektuen berri emateko, baita beste komunitateekin harremanak sendotzeko. **Ekintzen eta proiektuen inguruko informazioa gazteei ere helarazi nahi diegu.** Sare sozialen bidez edozein proiekturen berri emango dugu, eta parte hartzera animatuko ditugu. **Gure helburua da, gizarte guztiak parte aktiboak izatea, eta horretarako aukera berriak eskaintzea.**

Bezeroekiko harremanetan, ere, **bultzada zuzena eta zehatza** emateko, **gure lokalean eta publikoetan hitzaldiak eta aurkezpenak** egingo ditugu, gure ekintzak eta proiektuak herritarrengana helarazteko. Horretarako, hainbat leku eta jarduera egokituko ditugu, adibidez, eskola, kultur etxe edo udaleko guneetan hitzaldiak antolatuz, baita gizarte zerbitzuetan informazio emateko ekintzak ere.



Eskutik-en, **bezeroek gure zerbitzuaz pozik egon behar dute**. Horretarako, hilean behin bilera edo **feedback saio bat** egingo dugu, gure zerbitzuak hobetzeko eta bezeroen iritziak jasotzeko. **Gure bezeroen iritzia eta iradokizunak guztiz kontuan hartuko ditugu, gure lana etengabe hobetzen jarraitzeko**. Horrez gain, emailaz (eskutik@gmail.com) eta telefono bidez (**944 325 568**) gurekin harremanetan jar daitezke informazioa eskatzeko edota kexak eta proposamenak egiteko.



Gure konpromisoa da bezeroei zerbitzu egoki eta pertsonalizatua eskaintzea, eta horregatik, Eskutik-en lana eta gizartearekin duen harremanari malgutasun eta irekitasun handia eskaintzen diogu. **Bezeroen beharrei erantzuteko, gure zerbitzuak etengabe egokitzen ari gara**, eta haien parte hartzea eta proposamenak kontuan hartzen ditugu gure zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Era berean, **proiektu eta ekintzetan parte hartzera animatuko ditugu**, beti ere gure bezeroen interesak eta ongizatea lehenetsiz.

Gure helburua da bezeroek gurekin duten harremanetan esperientzia positibo eta gogobetegarri bat izatea, eta horregatik, Eskutik-en bezeroekiko harremanetan hobetzen eta berritzen jarraitzeko konpromisoa dugu.